

THERE IS NO ROSE

Gabonetarako musika

VOCALIATALDEA

Gabonetan musikak esanahi berezia hartzen du. Kristau tradizioak musikaz eta antzezpenez bete du Nazareteko Jesusen jaiotzaren kontakizuna. Hurbiltasun- eta komunitate-pertzepzioa ematen du kantu partekatuak, eta, horren ondorioz, nagusiki kantuaren bidez egindako musika-adierazpena dira Gabonak. **Gabon kanta herrikoiek, Bachen edo Händelen oratorioek, Sibilaren Kantuak eta beste askok**, baita urtero mundu osoko autoreek argitaratzen dituzten azken konposizioek ere, Jesusen etorrerari eta desio onetarako garaia den Eguberriari buruzko corpus musikal monotematikoa osatzen dute.

MUSIKA PROPOSAMENA

There is no Rose

Vocalia Taldeak aurkezten due programaren muina **Benjamin Britten** britainiar musikagilearen ***A Ceremony of Carols*** suiteak osatzen du. Mesiasen etorreraren aurrean bizitzari eta alaitasunari egindako kantu bat da, erritmo ezberdinez, kanon biziz, doinu xumez eta nostalgia puntu batez josia. Pieza honen bederatzi zatiek paisaiak marrazten dituzte, zeinetan koruak eta harpak urte berriaren iritsieratik neguko gau hotz eta ilunera igarotzen diren, jainko haurraren jaiotzak suposatzen duen Satanen aurkako gudutik pasatuz. Obra hasi eta ixten duen prozesio-kantu solemne batek bizi-zikloaren metafora musikala sortzen laguntzen du: betiereko itzulera eta heriotzaren eta bizitzaren arteko oreka.

Pieza enblematiko horri heldu genionean, gauza bakar, berri, batekin osatu nahi izan genuen, eta, horregatik, **Vocalia Taldearen proiektu honetarako berariaz idatzitako pieza bat eskatu genion Xabier Sarasola** euskal konpositoreari. Brittenek A Ceremony of Carols idatzi eta hogeita hamar urtera John Rutter konpositoreak Dancing Dayrekin egin zuen bezala, Xabier Sarasolari emakumeen korurako eta harparako idatzitako suite berri bat sortzea proposatu genion, inspirazio gisa Brittenen obra ospetsua hartuta.

Harro eta ilusioz beterik gaude Xabier Sarasolaren lan berri honekin, ***Urtats elur***-rekin, zeinetan bere ikuspegi pertsonaletik Gabonetako musika eta Euskal Herrian urte berriari ongietorria emateko erabiltzen diren tradizioak lantzen baitituen, abentura musikal hau are bereziagoa eginez.

Kontzertuaren egitaraua ***Vier Gesänge Op.17*** obrarekin osatuko da, **Johannes Brahms** musikagile alemaniarrak emakume abesbatzarentzako, harparentzako eta bi tronpentzako lau kantu biltzen dituen bilduma bikaina. Hanburgoko Emakumezkoen Abesbatzaren zuzendari izan zen garaian idatzitakoak, ia konposizio-ibilbidearen hasieran. Lau kantu hauek maitasun erromantiko eta oinazetuaren erakusgarri bikainak dira, betiere zorigaiztoko patuari, arrangurari eta heriotzari lotuta. Brahmsek musika jartzen die jatorri ezberdineko testuei, elkarrekin nostalgia unibertso sakon eta tragiko bat sortuz

There is no Rose, beraz, bizitzari egiten zaion kantu bat izan nahi du, ziklo bat berritzean sortzen den ilusioari eta itxaropenari egiten zaion kantua. Eta, agian, baita metafora bat ere, tragedia eta gaixotasuneko azken urte hau atzean uzteko eta indarberrituta berpizteko estimulu eta ilusio berriez betetako etorkizun baten aurrean.

JOHANNES BRAHMS

Hanburgo, 1833 - Viena,1897



Johannes Brahms **musikagile, pianojole eta orkestra zuzendari** alemaniarra izan zen. Konpositore erromantiko handienetakotzat hartzen da.

Brahms familia luterano xume batean jaio zen, non aitak taberna eta garagardotegietan musika joz bizimodua aurrera ateratzen baitzuen. **Musikari goiztiarra**, Johannes txikia laster hasi zen biolina joz aitari laguntzen, dantzarako musika eta moda doinuak interpretatuz. Aldi berean, Johannes gaztearengan talentu aparta ikusten jakin zuten irakasleen eskutik teoria musikala eta piano eskolak jaso zituen. Irakasle haiek lanarekiko diziplina, neurri eta ordenarekiko grina piztu zioten. Weimar hirian egonaldi labur bat egin ondoren, non Franz Liszt ezagutu baitzuen, **Brahms Düsseldorfera joan zen bizitzera**. **Han, Schumann eta haren emazte Clararekin harremanetan jarri zen, eta haiekin adiskidetasun estua izan zuen bere bizitza osoan.**

Beethovenen pausoak jarraituz, **1869an Brahmsek bere bizilekua Vienan ezarri zuen. Viena, musikaren Europako erreferentziazko hiriburua zen Mozart eta Joseph Haydnen garaitik**.

Han finkatu zuen bere estilo pertsonala, zeinak, Alemaniako literatura erromantikoko handien irakurketak eragindako hasierako planteamenduetatik eta Schumannen estetikatik hurbil, posizionamendu klasikoago batera bideratu baitzuen. Egoera horretan ereduak Vienako klasikoen tradizioan eta Bachen purutasun eta austeritatean bilatu zituen.

Konpositore erromantiko handienetakotzat hartzen da.

VIER GESÄNGE
Johannes Brahms

Johannes Brahmsek Vier Gesänge Op.17 lana, **hiru emakume ahotsentzat, bi tronparentzat eta arparentzat idatzitako lau abestirekin osotutako lana**, idatzi zuen 1859 eta 1860 artean idatzi zuen *Hamburger Frauenchor*-entzat (Hanburgoko emakume abesbatza).

Vier Gesängeren tronpa, harpa eta emakume ahotsen konbinazio paregabea Friedrich Rupertiren (1805-1867) olerkiak inspiratu behar izan zuen neurri batean, zeinetan oinarritzen den bilduma irekitzen duen abestia, ***Es tönt ein Voller Harfelklang*** (*Harparen notak entzuten dira*). Bertan, harparen soinuak nostalgia eta mina ekartzen ditu gogora. Bigarren abestia ***Lied von Shakespeare*** (*Shakespeareren abestia*) da, Twelfth Night komediako testuarekin, Errege gauari erreferentzia eginez. ***Der Gärtner*** *(Lorezaina*) Joseph von Eichendorffena da (1788-1857), XIX. mendeko alemaniar musikagileen artean olerkari ezaguna. Azkenik, ***Gesang aus Fingal*** (*Fingalen abestia*) James Macphersonek (1736-1796) idatzi zuen.

Lehen hiru olerkietan ahapaldi guztiak musika berarekin abesten dira; laugarrena, berriz, diseinu hirutar konplexuago eta landuago baten barruan garatzen da, bere maitalea guduan galdu duen emakume baten istorioa kontatuz. Azken pieza honetan, Brahmsek haitzetako haize orroen negarra eta bere nagusiaren heriotzaren aurrean txakurrek egiten duten marmarra deskribatzen ditu, zikloa amaiera indartsu eta kezkagarri batera eramanez.

Lau kantu koral hauek berezitasun bat dira Brahmsek konposatu zituenen artean. Ez dira bakarrik bereizten instrumentuez lagunduta izateagatik, baizik eta akonpainamendu horren izaeragatik: **bi tronpa eta harpa konbinazio guztiz erromantikoa**. Idazketa korala nahiko sinplea da, eta tratamendu homofonikoa eta bertikala du gehienbat, baina lirismo eta edertasun handikoa.

Tronpak, harpa eta emakumezkoen ahotsak modu paregabean uztartzen dituzten lau kantu koral

BENJAMIN BRITTEN

Ingalaterra, 1913 – 1976

Benjamin Britten **XX. mendeko konpositore ingeles handienetakotzat hartzen da**, eta bere lanek gaur egungo Europako musika-sorkuntzan ere eragina dute. Haren lanik ezagunenak Peter Grimes opera (1945) eta War Requiem, (1962) dira, gerraren irrazionaltasunaren salaketa bata eta Gerra Hotzaren garai betean idatzitako adiskidetzeko deia bestea.

Bere garaian **pertsonaia polemikoa izan zen musikari dagokionez, Mahler, Berg eta Stravinsky bezalako musikagileekiko zuen mirespenagatik**, haiek ingeles musikari gazte batentzat eredu txartzat hartzen baitziren. Peter Pears tenore ingelesaren bikotekide, polemikak arlo pertsonalean ere inguratu zuen bere sexualitate eta joera politikoengatik, batez ere Bigarren Mundu Gerran erakutsi zuen bakezaletasunagatik.

A CEREMONY OF CAROLS
Benjamin Britten

A Ceremony of Carols, op. 28, Gabonetarako konposaketa korala da, hiru ahots zurirentzat, bakarlarientzatetaharparentzatidatzia.1942an konposatu zuen, Brittenek 28 urte zituenean. Bigarren Mundu Gerraren lehen urteak Estatu Batuetan igaro ondoren, Ingalaterrara itzultzean egindako eskala batean *The English Galaxy of Shorter Poems* liburua erosi zuen, XIV. mendetik XVI. mendera bitarteko olerkiekin. Testu haiek eta itsasontziko ganbara deseroso batean egindako lanak obra hau ekarri zuten, non Brittenek ahots zurien sonoritatearen bere zaletasunari bide eman zion, ukiezina eta transzendentea adierazteko bitarteko gisa.

Doinu modalek eta dantza etengabeak modu nagusi eta txikiagoen artean, dantza eta otoitzaren artean, zikloko piezak blaitzen dituzte, obra ireki eta ixten duen a cappella ereserki prozesional batez kokatuz, ***Magnificat Hodie Christus natus est*** antifona gregoriarra, Eguberri garaian interpretatu ohi dena.

Lehen abestia ***Wolcum Yole!*** da, **jaiari ongietorria emateko**. Haririk baxuenak San Esteban, San Juan eta Urteberri egunei ematen die ongietorria; bigarrenak "errugabeak" (Herodesek eraildako haurrei erreferentzia eginez) eta Errege Magoak agurtzen ditu; altuenak, berriz, Thomas Becket martiria eta santuak. Amaieran, denek batera bertaratutako guztiak zoriontzen dituzte.

There is no rose lanean, non ingelesezko eta latinezko testuak aurki ditzakegun, koruak Jesusen jaiotzaren edertasuna miresten du.

That yongë child eta ***Balulalow*** sehaskako bi abesti dira, Ama Birjinaren irudia gogorarazten dutenak, bere seme jaioberriari abesten.

As dew in Aprilen zehar, non Kristo Mariaren altzoan apirilean loreen gainera erortzen den ihintzarekin alderatzen den, ahots ezberdinak bata bestearen gainean jartzen dira oihartzun efektu bat sortzeko. ***This little babe***k tempo azkar baten bidez irudikatzen du haurraren eta Satanen (ongia eta gaizkia) arteko borroka. Musika bere klimaxera iristen da, tonalitate eta erritmo aldaketa handiarekin.

Harparako interludio baten ondoren, ***In Freezing Winter Night***-en, kanonean tarteak elkar talka eginez, abesbatzak gau izoztuan hotzez dardarka dagoen haur jaioberriaren hauskortasuna gogoraraziko du. Musika beroa da berriz ere ***Spring Carol***en, eta Adanen jatorrizko bekatuaren erorketa gogorarazten duen ***Deo gracias*** miresgarria aurreratzen du. Erritmo sinkopatuak erabiltzeak eta staccatoak esker ona pizten dute.

Harparen papera ez da ahotsen laguntza harmoniko soilera mugatzen: pieza bakoitzean ahotsei erliebea emateko giro egokia sortzen laguntzen du. Zikloaren erdian aipatutako ***Interlude*** harpa bakarrerako daukagu, hasierako kantuaren melodia hartu eta lau notako ostinato bihurtzen duena, harmonikoz betetako eskala pentatoniko baten gainean, aire barnekoi eta misteriotsua ematen diotenak.

XABIER SARASOLA

Beasain, 1960

Xabier Sarasola **egungo musika koralaren egilerik interesgarri eta emankorrenetakoa da.**

Haren musikak lirismo eta sakontasun handia du, mugak gainditzen ditu, eta munduko abesbatza garrantzitsuenetako batzuek maiz eta erregulartasunez interpretatzen dute.

Haren konposizioek lotura interesgarria lortzen dute egitura formal eta harmoniko sendoaren eta kolore-ukitu ugariren artean. Hori guztia abesbatzen munduaz duen ezagutza sakonaren eta **abeslari eta zuzendari gisa duen esperientzia handia**ren emaitza da. Biolin eta piano tituluduna, **biolin, harmonia eta koro kantu irakaslea da eta hari orkestraren zuzendaria Gipuzkoako Beasaingo Udal Musika Eskolan**.

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatutako ikastaroetan ikasten aritu ondoren, abesbatzen zuzendaritzako ikastaroetan parte hartu zuen Javier Busto, E. Ericcson, A. Eby, C. Hogset eta G. Graden-ekin, besteak beste. **Loinatz abesbatzaren zuzendaria** izan da (1986–2012), eta **abeslaria eta kolaboratzailea Donostiako Orfeoian eta** musika garaikidean espezializatutako **KEA ahots taldean**.

Xabier **abesbatza zuzendaritzako ikastaro eta tailerretako irakaslea** da, eta epaimahaikide ere bada hainbat lehiaketatan: abesbatzen Europako Sari Nagusian, Gorizia eta Arezzon (Italia), eta Varnan (Bulgaria). Era berean, Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan epaimahaiaren presidente izan da, eta bere lan ezagunenetako batzuk derrigorrezkotzat jo dituzte hainbat edizio eta kategoriatan.

Hain zuzen ere, Vocalia Taldea ahots zurien abesbatzak musikagile honen obrak grabatu zituen Haizeak Dakar izeneko diskoan, non Xabier Sarasolaren errepertorioaren aukeraketa zabala jasotzen baita. Gainera, konpositoreak berak ere parte hartzen du pianista laguntzaile gisa.

URTATS ELUR
Xabier Sarasola

Xabier Sarasolak programa honetarako konposatu duen *There Is No Rose* lana, Vocalia Taldearen enkarguz, Benjamin Brittenen A Ceremony of Carols lanaren ispilu da. Irudi hori sortzeko asmoz, Sarasola lan horretan oinarritzen da, eta emakumeen korurako eta harparako suite bat konposatu du; instrumentu hori berritasun bat da bere konposizio-ibilbidean.
Xabierrek testu sakratuak konbinatzea proposatzen digu, ***O Magnum Mysterium*** motetea kasu, Nafarroako iparraldeko tradizioekin, non zenbait herritako gazteek agintarien aurrean iturriak ematen duen lehen ura aurkezten duten, berriztapenaren eta purifikazioaren sinbolo gisa.

Testuak osatzeko, Mikel Sarriegi poetaren laguntza izan du Sarasolak.

Xabieren testua:

Gabonei begirada bat. Ohiturak eta erritoak, paganismoa eta kristautasuna, urtearen amaiera eta berriari ongi etorria euskal tradizio aberatsean hain presente daudenak.
Hemen, hain aberatsa den euskal tradizioan izan diren horietako batzuei eskaini diet arreta, doinu eta letrak erabili ditut, doinu berria sortu dut (Ela Ela) latinezkoa, eta Mikel Sarriegik egindako testuari musika jarri diot (Gaur elur).

2.etik 5.era doazen kantak Jesusen jaiotzari lotutakoak dira, euskal folklorean ditugun harribitxiak. 6.ean, O Magnum Misteriumen, berriz, Jesusen jaiotzari lotutako latinezko testu ezaguna erabili dut. 7.etik 11.era, berriz, eske-kantak dira. Gabon gauean eta urte zahar gauean ez da erabat desagertu etxez etxe kantuan ibiltzeko ohitura, bai kristau kantuak abestuz eta baita paganoak ere, tartean ur edo urte berriari eta baita gerturatzen ari den ihauteriari eskainitakoak. Egun Ttun Ttun.

Prozesiorako eta Rezesiorako, obraren hasiera eta amaiera, Mikel Sarriegik egindako testu batean oinarrituta kanta bat konposatu dut. Hiru bertso dira , Lurra-Ura –Argia.

***URTATS hitzak urte berria esan nahi du eta, aldi berean, oparia-aginaldoaren esanahia** hartzen du. Adibidez 9. abestian.*

Oraingoan, honako hau izan da gabonei eskainitako begirada. Ez da lehenengoa ez eta bakarra ere. Norberak aurkituko du (edo ez...) bere gustukoa.

Gaur egun, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Errioxako 36 abeslarik osatzen dute Vocalia Taldea, den-denak eskarmentu handikoak abesbatza-musikaren alorrean.

VOCALIA TALDEA
Emakume abesbatza

2000. urtean sortu zen Vocalia Taldea emakume abesbatza, egungo zuzendari Basilio Astulezen ekimenez. Vocalia Taldeak bidea ematen die **Euskal Herriko zenbait emakume musikari** profesionalen erronka eta kezkei. Taldearen asmoa da ahots-talde egonkor bat izatea, ekin diezaiokeena ohiko programazioetan nekez entzun daitekeen errepertorio bati, musika eta ahots aldetik exijentzia-maila handikoa delako.

Gaur egun, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa eta Errioxako bataz besteko 36 abeslarik osatzen dute Vocalia Taldea, den-denak eskarmentu handikoak abesbatza-musikaren alorrean. Programazio ausartak eta eszenaratze zainduak bitarte, taldea erreferente bihurtu da egungo musika koralaren munduan.

Vocalia Taldeak **a cappella musika jorratzen du batez ere, Euskal Herrikoa zein nazioartekoa, eta garai klasikoetatik hasi eta musika garaikideraino**. Horrez gain, XX. eta XXI. mendeetako errepertorioen ikerlan sakona egiten du, eta musika-lan sortu berriekin aberasten du bere errepertorioa, abangoardiako konpositoreen ekarpenak lagun.

Hasieratik beretik, Vocalia Taldeak **gonbidapen aunitz jaso izan ditu Espainiako eta Europako** (Italia, Frantzia, Irlanda, Belgika...) **abesbatza-jaialdi** ugaritan parte hartzeko. Kritikak txalotu egin du ibilbidean ezaugarri nagusi kalitatea, orijinaltasuna eta berrikuntza dituen taldearen jarduna. Taldea **zenbait orkestra, bakarlari eta kultur erakunderekin batera aritu izan da sarritan**, eta **hogei saritik gora jaso** izan ditu nazioarteko lehiaketetan.

2019ko azaroan, Gustav Holsten musika eskainiz **bost kontzertuko bira bat** egin zuen **Juanjo Mena zuzendariaren gidaritzapean,** Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin eta abonamendu-programaren barruan.

2020ko urrian, Vocalia Taldeak kontzertu bat eskaini zuen Gasteizko Kontserbatorioko Gela Nagusian, emakumezkoen koruarentzako errepertorio garaikidearekin, eta urte horretako iraila eta abendua bitartean **Le Muse Veneziane programa barrokoa** aurkeztu zuen, A. Vivaldi, N. Porpora eta B. Galuppiren musikarekin, Zumarraga, Zenarruza eta Ordiziako antzinako musikako zikloetan, **Conductus Ensemblerekin batera, Andoni Sierraren gidaritzapean**.

Oraintsuago, 2021ean, Vocalia Taldeak Las Rozaseko *Musika Sakraren Zikloa*n (Madrilen) eta Azkoitiako *Udaberriko Musikaldian* parte hartu du. Gainera, datozen hilabeteetan beste zenbati kontzertu eskainiko ditu Zornotzan (Bizkaia), Akizen (Frantzia) eta Gasteizen.

Vocalia Taldeak elite profesionaleko erreferentziazko abesbatzen ziurtagiria jaso zuen 2020ko azaroan, Euskal Autonomia Erkidegoko abesbatzen Konfederazioak emana, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak ezarritako irizpideak aplikatuz. Aintzatespen horri esker, Vocalia Taldeak bere entsegu sistema eta programazio artistikoarekin jarraitu ahal izan du murrizketen hilabete hauetan guztietan.

ABESLARIAK

1. Sopranoak	2. Sopranoak	1. Altoak	2. Altoak
Zuriñe Alvarez	Cristina Saldías	Nagore Mtz. Aguirre	Mertxe Fdz de Bastida
Idoia García	Esti Asurmendi	Lorena Garro	Larraitz Gorriño
Amaia Igartua	María Balda	Elena Madrazo	Marian Napal
Katrin Iturralde	Idoia Aguirre	Marixa Fdz. Monge	Esther Santamaría
Jaurne Gaminde	Irma Rutkauskaite	Oihane Toledo	Esther Santamaría
Iratxe Garai	Rakel Guridi	Amaia Guridi	Audrone Almanaityte
Adela Olaskoaga	Mariaje Zornoza	Miren Martín	Rose Rodriguez
Igone Abio	Marijose Idiakez	Tjaša Ostervuh	
Isabel Sanz	Laida Otaduy	Olaia Arrieta	
Natalia Marín		Saioa Goñi	

Vocalia Taldeak hiru disko grabatu ditu, Neskatxena, Maria Mater eta Haizeak dakar, azken hori Xabier Sarasolaren musikari eskainia.

MUSIKA BERRIAREKIN
konprometituak

Vocalia Taldearen lehentasunetako bat taldearentzat bereziki idatzitako musika berria sortzeko konpromisoa da. Sortu zenetik, **Vocaliak euskal autoreen eta beste herrialde batzuetako autoreen lanak enkargatzen eta estreinatzen ditu** aldizka, eta sorkuntza-prozesuak eta konpositorearekiko zuzeneko komunikazioak ahalik eta gehien aberasten dute.

Musika-sorkuntzari laguntzeko proiektu honen emaitza **20 obra baino gehiagotan gauzatzen da, eta taldea harrotasunez betetzen du, emakumeen abesbatzentzako abesbatzen ondareari ekarpena egitea dakarrelako**. Hainbat partitura saritu dituzte Vocalia Taldeak estreinatu dituen jaialdietan.

Besteak beste, **enkarguak egin dizkie Eva Ugalde**, **Xabier Sarasola**, **Javier Bust**o eta **David Azurza** euskal musikagileei. **Albert Alcaraz**, **Josep Vila i Casañas**, **Ko Matsushita**, **John Pamintuan**, **Tone Bianca Dahl** eta **Dante Andreok** ere Vocalia Taldearentzako partitura berriak sortu dituzte.

Gure webgunean, www.vocaliataldea.com-en, lan horien guztien izenburuak eta egileak jasotzen dira.

basilioastulez@hotmail.com

649 995 428

basilio.astulezduque

BASILIO ASTULEZ
Zuzendaria

Kantu koraleko irakaslea da Leioako Udal kontserbatorioan, eta bertako zenbait abesbatzen sortzailea: 2001ean *Leioa Kantika Korala* haur abesbatza, 2005ean *La Kantoria* nesken abesbatza gaztea, eta 2007an *San Juan Abesbatza* mistoa. Koru eskola gazte honek 7 eta 25 urte bitarteko 150 abeslaritik gora biltzen ditu, eta sari ugari jaso izan ditu Espainia eta Europako lehiaketetan.

2000. urtean Vocalia Taldea izeneko emakumeen ganbera-abesbatza sortu zuen, zeinak ordutik honako ibilbidean **20 saritik irabazi duen nazioarteko abesbatza-lehiaketa garrantzitsuenetan**.

Talde horien buruan, 10 disko grabatu ditu, bai eta nazioarteko zenbait bira egin ere Europa eta Amerikan barrena, zeinetan lehen mailako bakarlari, orkestra, zuzendari eta abesbatzekin lankidetzan aritu izan den.

2008an **zuzendari onenaren sari berezia** irabazi zuen Goriziako (Italia) **47. C. A. Seguizzi Nazioarteko Lehiaketan**, Leioa Kantika Koralaren buruan egindako lanagatik.

2009an ere **zuzendari onenaren sari berezia** jaso zuen **Tourseko (Frantzia) 38. Florilège Vocal lehiaketan**, Vocalia Taldearen zuzendaritzagatik.

Gaur egun koru-zuzendaritzako irakasle lanetan dihardu hezkuntza-entitate, unibertsitate eta zenbait abesbatza-federazioentzako. Sarritan deitzen dute Europan, Amerikan eta Asiako lehiaketetan epaimahai aritzeko, bai eta ikastaro eta mintegiak emateko ere.

2018tik aurrera, gainera, **koru-zuzendaritzako irakaslea da Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian**.

2019ko azaroan Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak **Euskal Herriko Gazte Abesbatzaren zuzendari artistiko** posturako aukeratu zuen, Euskal Herriko 40 abeslari biltzen dituen abesbatza..

FRANCESCA ROMANA DI NICOLA

Rieti, Italia

Italian **harpan graduatu zen L'Aquilako "A. Casella" goi-mailako kontserbatorioan, "cum laude" notarekin**. Musika ikasketak hobetu zituen Fabrice Pierre, Anna Loro, E. Fontane Binoche, Judith Líber, Marie-Pierre Langlamet eta Frederique Cambreling-ekin. Harpa zelta eta paraguaitarra ere ikasi zituen Erromako Arte Akademiaren Fundazioan.

2005ean, Espainian ikasteko **beka bat irabazi zuen. Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Kontserbatorioan Harpan espezializatu zen**. 2006an beste beka bat irabazi zuen Florentzian Maggio Musicale antzokiko orkestraren Akademiarako, Zubin Mehta maisuaren zuzendaritzapean eta orkestra errepertorioan masterra lortu zuen.

2014an ***L'Incontro duoa*** **sortu zuen** (harpa eta oboea) Itziar Lujanbio oboistarekin batera. **Zenbait proiektu sortu zituen: Il Salotto Barocco**, musika tradizionala, bereziki euskalduna eta italiarra, berreskuratzeko eta zabaltzeko. 2017an Kalakan iparraldeko hirukote euskaldunarekin Lamin albuma egin zuen, Italiako barrokoaren eta euskal musika tradizionalaren arteko fusioa.

Bere ibilbide profesionalean Francesca **etengabe aritzen da orkestra ospetsuekin elkarlanean**, hala nola San Petersburgoko Marinsky antzokiko Orkestra, La Camerata Strumentale di Prato Italian, Alemaniako Koloniako das neue Orchester eta beste asko, Euskadiko Orkestra eta Bilboko Orkestra Sinfonikoaz gain. Parisko Ensemble Intercontemporainekin Europako bira batean parte hartu du Pierre Boulez maisuaren zuzendaritzapean eta kontzertu areto ospetsuetan lan egin du, Lucernako KKL Auditorioan, Parisko Pleyel aretoan, Municheko Prinzregentent, Amsterdamgo Concertgebouw-en eta Londresko Royal Festival Hall-en, besteak beste.

2017 urtean lankidetza handia hasi zuen ***Umbria Jazz Nazioarteko Zinemaldiarekin*** (Perugia, Italia) eta ***Donostiako Jazzaldiarekin,*** Gil Evans-en piezak berreskuratzeko proiektuak barne, eta estuki aritu zen lanean Gil Goldstein, Gregory Porter eta Quincy Jones-ekin. 2019an, **San Petersburgoko Marinsky antzokiko orkestrak egindako bira batean parte hartu** zuen, Valerij Gergiev-en zuzendaritzapean.

Kamera edo orkestra formatuko beste grabazio askoren artean, M. Ravelek Euskadiko orkestrarekin egindako abestiak edo Fernando Velazquez konpositorearekin Espainiako zinema garaikiderako egindako soinu-bandak nabarmendu daitezke (Saria Goya 2017).

JESÚS GURIDI KONTSERBATORIOKO TRONPA-JOTZAILEAK

Gasteiz

Vocalia Taldeak tronpako jotzaileak izango ditu laguntzaile: **Oliver De Castro** (tronpa irakaslea) eta **Elena Angulo,** (tronpako Irakaskuntza Profesionaleko 6. mailako ikaslea). **Brahms**en ***Vier Gesänge*** obraren interpretazioan parte hartuko dute.

There is no Rose

FITXA TEKNIKOA

PARTE HARTZAILEAK

SSAA abesbatza eta SS bakarlariak, harpa eta bi tronpa, Basilio Astulezen zuzendaritzapean.

IRAUPENA

Kontzertuak **65 minutuko iraupena** du, honela banatuta (gutxi gorabeherako iraupenak)::

B. Britten, A CEREMONY OF CAROLS (25 min.)
J. Brahms, VIER GESÄNGE (15 min.)
X. Sarasola, URTATS ELUR (25 min.)

ESPAZIOA

Kontzertuak espazio egokia behar du musika mota honetarako (auditoriuma, kapera edo kontzertu-aretoa). Eszenatoki edo aldare zabal bat behar da, non lehen planoan instrumentu-jotzaileak eta zuzendaria kokatuko diren; atzean korua jarriko da. Kantarien ilara kopurua espazioaren zabaleraren araberakoa izango da. Espazioaren ezaugarrien arabera, baliteke harmailak instalatu behar izatea.

AURREKONTU EKONOMIKOA

Proiektu artistiko honen **aurrekontua .....** da.
Kopuru horren barruan instrumentu-jotzaileen, abesbatzaren, bakarlarien eta zuzendariaren ordainsariak sartzen dira, baita parte hartzaileak eta harpa kontzertuaren lekura eramatea ere.

PROGRAMA

VOCALIA TALDEA, emakume abesbatza
BASILIO ASTULEZ, zuzendaria
FRANCESCA DI NICOLA, harpa
OLIVER DE CASTRO, tronpa
ELENA ANGULO, tronpa
JAURNE GAMINDE, sopranoa
IDOIA AGUIRRE, sopranoa
SAIOA GOÑI, altoa

Benjamin Britten, Ingalaterra 1913-1976

A CEREMONY OF CAROLS
Procession
Wolcum Yole!
There is no Rose
That Yongë Child
Balulalow
As Dew in Aprille
This Little Babe
Interlude
In Freezing Winter Night
Spring Carol
Deo Gracias
Recession

Johannes Brahms, Alemania 1833-1897

VIER GESÄNGE Op. 17
Es tönt ein voller Harfenglang
Lied von Shakespeare
Der Gärtner
Gesang aus Fingal

Xabier Sarasola, Euskadi 1960

URTATS ELUR
Prozesioa
Bi eta hiru bider
Ai! Hau gabaren
Diongraziaz
Ez dukezu, o Maria
O magnum mysterium
Interludio
Verbum Caro Factum Est
Egun ttun ttun
Ela ela
Ur goiena
Rezesioa

www.vocaliataldea.com

info@vocaliataldea.com

#CanaldeVocaliaTaldea

#Vocaliataldea

@Vocaliataldea

VOCALIATALDEA